



EUSKO JAURLARITZAREN ZERBITZU JURIDIKOA ANTOLATZEKO LEGE- AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

I. ESKUMENA

Txosten hau egin da Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren babesean, eta abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak (zeinak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen baititu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen baititu) 6.1 artikuluan xedatzen duenarekin eta apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak (zeinak Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen baititu) 16.a) artikuluan ezartzen duenarekin lotuta.

Txosten honek funtzio publikoari berariaz edo ondorio gisa eragiten dioten alderdiak baino ez ditu aztertzen, eta, beraz, zuzendaritza honek ez ditu gainerako gaiak kontuan hartuko.

II. XEDEA ETA HELBURUA

Legearen xedea eta helburua Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoa antolatzeke lege-aurreproiektua egiteko prozedura hastea erabakitzen duen Herri Administrazio eta Justizia sailburuaren Aginduan daude jasota, bigarren eta hirugarren artikuluetan. Artikulu horietan, xedea eta helburua zerrendatzen dira, bai eta proposatutako erregulazioaren edukia ere. Hona hemen hitzez hitz jasota:

"BIGARRENA.- Xedea eta helburua

Lege-aurreproiektuaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzen da; bestela esanda, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokor eta Instituzionalerako laguntza juridikoa arautzen da, zeina sailetako edo erakunde instituzionaletakoa aholkularitza juridikoek eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak emango baitute.

HIRUGARRENA.- Proposatutako erregulazioaren edukia

Erregulazio-esparrua kontuan izanda, proposatutako arauak eduki hau izango du:

- Legearen xedeari, Eusko Jaurlaritzari laguntza juridikoa ematen dioten unitateen jardun-eremuari eta unitate horiei esleitutako eginkizunei buruzko xedapen orokorrak.
- Kontsulta-eginkizunaren edo laguntza juridikoaren erregulazioa –bai sailetako eta erakunde instituzionaletakoa aholkularitza juridikoei dagokien eginkizuna, bai Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokiona–, kontuan izanda laguntza juridiko horren barruan dagoela Zuzenbidearen arloan behar den aholkularitza ematea eta nahitaezkoztat jotako edo administrazio-jardunak hala eskatutako txosten eta irizpen juridikoak egitea.
- Auzietan jarduteko eginkizuna ere arautuko da, edo gauza bera dena, epaiketan Zerbitzu Juridiko Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, haren

agintariak eta langileak ordezkatzeara eta defendatzeara, horretarako auzibide-irizpideak eta -arauak ezarriz.

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren antolaketa, besteak beste, haren zuzendaritzari eta zerbitzuko langileei dagokienez. Halaber, zerbitzuan sartzeararekin, lanpostuen hornitzearekin eta langile horien estatutuarekin lotutako beharrezko arauak emango dira.

III. LEGEZKOTASUNA

Txosten hau emateko, indarreko araudia hartu behar da kontuan, eta, beraz, aurkeztutako proiektua araudi horretara egokitu behar da, eta zehazkiago, honako hauek:

- 7/1981 Legea, Eusko Jaurlaritzarena.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa
- 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa.

IV. EDUKIA

1.- JARDUN-EREMUA

A) 1. artikulua idazketan erakunde instituzionalak aipatzen dira.

Aplikazio-esparruan sartuta daude sailak eta erakunde instituzionalak. "Erakunde instituzionalak" terminoak Administrazio Instituzionala osatzen duten erakundeei erreferentzia egiten diela irizten da. Beraz, erakunde instituzionaltzat hartuko dira, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 7. artikuluan zehaztutakoak, betiere Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legearen aldaketen ondoko testu berriaren arabera; hau da, erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.

Egokia litzateke puntu honetan idazketa aldatzea, eta "Administrazio Instituzionala osatzen duten erakundeei" adierazpena jasotzea.

B) Aholkularitza juridikoak

Gaur egun, aholkulari juridikoaren berezko eginkizuna da aholkularitza juridikoa. Lanpostu horren dotazioak hainbat zerbitzuri eta administrazio-unitateri atxikita daude. Aurkeztutako proposamenaren bidez, sortuko den Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusi berriari bakarrik aitortuko zaio eginkizun hori betetzeko eskumena, bai eta sailtako aholkularitza juridikoei ere. II. kapitulutik hau ondorioztatzen da: *Aholkularitza juridikoa*. Kapitulua honetan, aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna berriaz hauei esleitzen zaie: sailtako aholkularitza juridikoei edo administrazio instituzionala osatzen duten erakundeei, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridiko nagusiari eta Euskadiko Aholku Batzordeari.

Aurkeztutako proposamenen arabera, sailtako aholkularitza juridikoek eta abokatuz osatutako Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak osatzen dute Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridikoa. Sailtako aholkularitza juridikoak aholku

juridikoak ematen ditu. Zerbitzu Juridiko Nagusiak aholkularitza juridikoko eginkizunak betetzen ditu, eta epaiketari Eusko Jaurlaritza ordezkatu eta defendatzen du.

Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoak sailetako aholkularitza juridikoak soilik hartzen ditu bere baitan. Sailetako aholkularitza juridikoek zer esan nahi duten ez dakigunez, argitzeko eskatzen dugu.

Aholkulari juridikoaren lanpostua bakarra da, eta 210 dotazio ditu. Dotazio horietako batzuk zerbitzuen zuzendaritzari atxiki ohi zaizkien sailtako aholkularitza juridikoetan daude, edo beste administrazio-unitate batzuetako aholkularitza juridikoetan. Beste dotazio batzuk, berriz, aholkularitza juridikoak ez diren beste zentro organiko batzuei atxikitzen zaizkie.

GIP aplikazioan, 510060 kodea duen aholkulari juridikoaren lanpostuaren zentro organiko hauek aurkitu dira:

- Administrazioa
- Administrazioa eta Industria Segurtasuna
- Herritarren Berdintasun Eskubideen Defentsa arloa
- Kirol Arloa
- Aholkularitza Juridikoa/Zerbitzu Juridikoa/Arlo Juridikoa/Aholkularitza Juridikoaren Arloa
- Aholkularitza Juridikoa (A)/Aholkularitza Juridikoa (B)/Aholkularitza Juridikoa (G)
- Aholkularitza Juridikoa - Kultura
- Aholkularitza Juridikoa - Hezkuntza
- Aholkularitza Juridikoa eta Informazioa
- Aholkularitza Juridikoa - Jabetza Intelektuala
- Laguntza Juridikoa
- Nekazaritzako Elikagaien Kalitatea
- Trafikoko arau-hausteak izapidetzeko zentro automatizatuak
- Adiskidetzak
- Kooperatibak
- Lan Ordezkaritza - Araba
- Arabako Lurralde Ordezkaritza
- Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza
- Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza
- Komunitate-garapena
- Gizarte Ekonomiarako Zuzendaritza
- Prebentzioa eta Laneko Segurtasunerako Zuzendaritza
- Zerbitzu Zuzendaritza
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
- Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
- Etxebizitza Zuzendaritza
- Erakunde ordaintzaileak ordainketa egitea
- Sindikatu Hauteskundeak
- Energia eta meatzak
- Familia
- Langileen kudeaketa
- Lurzuaren kudeaketa
- Kudeaketa Juridikoa-Administratiboa
- Trenbideen eta Metroaren Azpiegitura
- Zerbitzuen Ikuskaritza Nagusia
- Helduaren Justizia
- Doako Justizia eta Justiziarekin Lankidetzak

- Gazte Justizia eta Familia Elkartzeko Guneak
- Gizarte Komunikabideak
- Arabako Lurralde Bulegoa
- Bizkaiko Lurralde Bulegoa
- Gipuzkoako Lurralde Bulegoa
- Arabako Trafiko Lurralde Bulegoa
- Bizkaiko Trafiko Lurralde Bulegoa
- Gipuzkoako Trafiko Lurralde Bulegoa
- Lan Antolamendua
- Lurralde Antolamendua eta Plangintza
- Kontratuazko Baliabideen Administrazio Organoa
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua
- Hizkuntza Normalizaziorako Planak Herritarren hizkuntza-lokalak eta eskubideak
- Arrantzaren Antolamendu eta Planifikazioa
- Familia Politika
- Prebentzioa
- Nekazaritza Ekoizpena eta Merkatuak
- Araubide Juridikoa
- Administrazio-erregistroak
- Enpleguaren Erregulazioa
- Harreman Kolektiboak
- Harreman Kolektiboak eta Sindikatu Hauteskundeak
- Tokiko Administrazioekiko Harremanak
- Justizia Administrazioarekiko Harremanak
- Zehapenak
- Lan Antolamenduko eta Kooperatibetako Zehapenak
- Idazkaritza Teknikoa
- Idazkaritza eta Kooperatibak
- Ondare Zerbitzua
- Bizkaiko Kontsumo Lurralde Zerbitzua
- Negoziazio Kolektiboaren eta Lan-harremanen Zerbitzua
- Hautaketa Zerbitzuak
- Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiaren Zerbitzuak
- Zerbitzu Orokorrak
- Sistemak eta Kudeaketa
- Administrazio, Antolamendu eta Giza Baliabideen zuzendariordeztza
- Lan Ikuskaritzako zuzendariordeztza
- Lana
- Trazabilitatea eta Elikagaien Segurtasuna
- Erreklamazio, bitartekaritza eta arbitraje unitatea
- Zerbitzu orokorren unitatea

Zenbait dotazioen monografiak buruzko estatistika-azterlan bat egin ondoren, eginkizunak dotazio guztietan berdinak direla erreparatu da, eta zereginekin lotuta, jaso ohi diren zazpi artean ohikoa dela eginkizun bat edo bi izatea.

Eginkizunak:

- Arlo juridikoko ebazpen-proposamen administratiboak egitea
- Arlo juridikoko arauzko xedapen-proposamenak egitea
- Erreklamazio eta errekurso administratiboak kudeatzea
- Arlo juridikoko hitzarmenak egitea
- Legezketasun-txostenak egitea
- Arlo juridikoko jardueren inguruko aholkularitza ematea
- Arlo juridikoko txosten juridikoak egitea

- Prozedura tasatuetan Autonomia Erkidegoko Administrazioa defendatzea

Zereginak:

- Aholkuak ematea, dagokion jardun-eremuan
- Jarduketak koordinatzea, dagokion jardun-eremuan
- Jardun-eremuko gaien inguruko azterlanak egitea
- Dagokion jardun-eremuan txosten teknikoak egitea
- Xedapen orokorren proiektuak eta lege-aurreproiektuak egitea dagokion jarduketa-esparruan
- Espedienteak izapidetzea, dagokion jardun-eremuan
- Errekurto administratiboentzat ebazpen-proposamenak egitea

Jakintza arlo berean kokatzen dira

Jakintza arloa: Arlo juridikoa

Kontuan izanda aholkulari juridiko lanpostuaren dotazio guztiek eginkizun berak dituztela, eta aholkulari juridiko lanpostuaren dotazio guztiek aholkularitza juridikoko eginkizunak betetzen dituztela, sailetako aholkularitza juridikoak zer diren argitzeko eskatzen da, zer dotazio sartuko liratekeen Zerbitzu Juridikoan, zein ez, zergatik eta zer egoeratan geratzen den lanpostu horretako dotazio bakoitza.

Aholkularitza juridikoko arduradunaren lanpostua bakarra da, eta 13 dotazio ditu. Dotazio horietako batzuk zerbitzuen zuzendaritzari atxiki ohi zaizkien sailetako aholkularitza juridikoetan daude, edo beste administrazio-unitate batzuetako aholkularitza juridikoetan. Beste dotazio batzuk, berriz, aholkularitza juridikoak ez diren beste zentro organiko batzuei atxikitzen zaizkie.

GIP aplikazioan, 510061 kodea duen aholkularitza juridikoko arduradunaren lanpostuaren zentro organiko hauek aurkitu dira:

- Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza
- Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza
- Etxebizitzako Plangintza eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
- Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza
- Gizarte Ekonomiarako Zuzendaritza
- Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuzko baliabideen organo administratiboa
- Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza
- Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza
- Funtzio Publikoko Zuzendaritza
- Trafiko Zuzendaritza
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza

Zenbait dotazioren monografiari buruzko estatistika-azterlana egin ondoren, eginkizunak dotazio guztietan berdin-berdinak direla ikusi da.

Eginkizunak:

- Sektore-arloan irizpideak ezartzea
- Arlo juridikoko ebazpen-proposamen administratiboak egitea
- Arlo juridikoko arauzko xedapen-proposamenak egitea
- Jardueren legezkotasuna gainbegiratzea
- Arlo juridikoko hitzarmenak egitea
- Legezkotasun-txostenak egitea
- Arlo juridikoko jardueren inguruko aholkularitza ematea

- Arlo juridikoko txosten juridikoak egitea

Kontuan izanda aholkularitza juridikoko arduradun lanpostuaren dotazio guztiek eginkizun berak dituztela, sailetako aholkularitza juridikoak zer diren argitzeko eskatzen da, zer dotazio sartuko liratekeen Zerbitzu Juridikoan, zein ez, zergatik eta zer egoeratan geratzen den lanpostu horretako dotazio bakoitza.

3. artikuluan adierazita dauden aholkularitza juridikoen eginkizunei dagokienez, erreparatu da eginkizun horietan ez direla aipatzen sail bakoitzari esleitutako eskumen batzuk, hala nola diziplinazko ahalak indarreko xedapenei jarraiki erabiltzeari buruzkoak. Gaur egun, sail bakoitzeko aholkularitza juridikoek erabiltzen dituzte ahal horiek.

C) Zenbait esparrutan aholkularitza juridikoak sortzea

Zenbait esparrutan aholkularitza juridikoak egotea aurreikusten da. Aurreikuspena etorkizunari begira egiten da, gaur egun, jada badaude ere. Adibide gisa, Funtzio Publikoko Zuzendaritza aipa dezakegu. Zeharkako izaera du laguntza juridikoa ematen baitio sailari berari, aholkularitza juridikoen kasuan bezala, baina baita sail guztiari eta administrazio instituzionalari dagokion esparruaren baitan. Kasu jakin honetan, Funtzio Publikoko Zuzendaritza sail bateko aholkularitza juridikoen zerbitzu arrunt bat baino gehiago dela esan daiteke, "zerbitzu arrunt plus" bat da. Hori dela eta, jada badauden administrazio-unitate horiei buruzko aurreikuspen bat gehitu ala ez erabaki behar da (Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoarekin gertatzen den bezala).

D) Bitarteko funtzionarioak

Espezialitatea sortzean, goi-mailako teknikarien kidegoko zuzenbide aukera sartzeko bidea ematen da, bi sarbideren bidez, espezialitatearekin eta espezialitaterik gabe.

Aurkeztutako proposamenean, xedapen gehigarrietako lehenengoan jasotzen da Eusko Jaurlaritzaren abokatuen espezialitatearen barruan sartuko direla goi-mailako teknikarien kidegoko edo A-2ko zuzenbide lizentziadunen aukerako karrerako funtzionarioak; horretarako, baina, bost urtetik gorako antzinatasuna izan behar dute kidegoan, legea indarrean sartzen denetik aurrera.

Zentzuzkoa dirudi lege-proiektuak aholkulari juridiko lanpostuaren dotazioa okupatzen ari den bitarteko funtzionarioen egoerari buruzko arauketaren bat jasotzea. Zehazki, arautu beharko da ea aintzat hartuko diren dotazio horietan emandako zerbitzuak, goi-mailako teknikarien kidegoaren barruan zuzenbide lizentziadunen aukerako abokatuen espezialitateko karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuetara aurkezteko.

Halaber, balorazio juridikoa egin beharko litzateke, abokatuaren lanpostua lan-politsetan sartzearen inguruan sortutako hutsune juridikoa betetzeko beharrari buruz; hain zuzen, aztertu beharko litzateke zer eragin izango lukeen aholkulari juridikoen lan-poltsan egonik, zuzenbidean lizentziatuen kidegoko lanpostuak betetzen esperientzia duten bitarteko langileengan.

2.- ESPEZIALITATEA SORTZEA

Goi-mailako teknikari kidegoko edo A2ko zuzenbide lizentziadunen aukerako abokatuaren espezialitatea Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren bidez sortzen da.

Zenbait lanpostu betetzeko betekizun gisa jakintzen espezializazio handiagoa izatea eskatzen bada goi-mailako teknikari kidegoko zuzenbide aukerako eginkizunak betetzeko baino, espezialitateak sor daitezke.

Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bidez sortu, arautu eta aldatzen da espezialitatea. Dekretuak espezialitatearen izendapena, zer jakintza berezi eskatzen diren, ziurtatzeko prozedurak, eta hala badagokio, eskatutako betekizunen galera zehaztuko ditu.

"Analisi Funtzionalen" prozesuaren euskarri-dokumentuak, gaur egun, ez du bere baitan hartzen espezialitate honen sorreraren justifikazioa. Izan ere, dotazio guztietan, aholkulari juridiko lanpostuaren berezko eginkizunetako bat da *"A013.023 Prozedura tasatueta Autonomia Erkidegoko Administrazioa defendatzea"*. Edonola ere, beharrezkoa dirudi aztertzea Legea indarrean jartzeak berekin ekarriko duen dotazio guztietan aholkulari juridiko lanpostuen monografiak edukia aldatzea.

3.- ZERBITZUA SORTZEA

Zerbitzu juridiko nagusiaren antolaketaren zati bat arau honen bidez sortuko da. Izan ere, zerbitzu juridiko nagusiko zuzendaritza-organoak aipatzen ditu. Koordinazio Juridikoko Batzorde izeneko kide anitzeko organo espezialitate batek laguntzen die zuzendaritza-organo horiei.

Zerbitzuaren antolaketari buruzko 15. artikulua egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duten arauak lotzen zaie, nahiz eta 2. puntuan zuzendaritza-organoak daudela aipatzen den.

Une honetan, egokia da gogora ekartzea Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren azken xedapenetako lehena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen. Horrenbestez, zorrotasun-printzipioek lehenetsuna dute.

"Lehena.-1.- Sailburuek, Eusko Jaurlaritzari buruzko Legeko 26.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, lehendakariari aurkeztuko dizkiote -2013ko martxoaren 31 baino lehen- euren sailei dagozkien arautegi organikoei buruzko egitasmoak, onarpena eman diezaien. Sailburuei izendatutako jardun-arlo bakoitzarentzat Jaurlaritzaren programan jasotako helburuei eta programa hori argitu duten irizpideei egokituko zaizkie egitasmoak."

2.- Araudi horiek beteko dituzten antolaketa-irizpideak: zorrotasuna eta antolaketa murriztea, egitura soiltea, egiteko-arloak bateratzea, eduki zabaleko egiteko-arloak eraikitzea, egiturazkoak ez diren staff egiteko-arloak identifikatzea eta informazioaren teknologiaz ahalik gehien baliatzea."

Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusia osatuko duten langileak Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiko abokatu lanpostuen eta laguntza-langile lanpostuen titularrak izango dira.

Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 11. artikulua organoak bikoiztea debekatzen du:

"11. artikulua. Administrazioko organoak sortzea

1.- Herri-administrazio bakoitzak zehaztu behar du, nork bere eskumenen eremuan, zein administrazio-unitatek osatzen dituen bere administrazio-organoak, hain zuzen ere, ezarrita duten antolaketaren arabera espezialitateei dagozkienak.

2.- Administrazioko organoren bat sortzeko ondorengoak zehaztu behar dira:

a) Nola kokatuko den dagokion herri-administrazioan, eta zeinen mendean egongo den.

b) Zein egiteko eta eskumen izango dituen.

c) Abian jartzeko eta jarduteko beharko dituen diru-izendapenak.

3.- Ezin izango da organo berririk sortu, lehendik dagoenen bat bikoiztea dakarrenean, baldin eta, aldi berean, lehendik daudenei eskumena kendu edo behar bezala murrizten ez bazaie."

Lege-proiektuarekin batera aurkeztuko den memorian, aztertu egin behar da administrazioko organo berri hori sortzeak gaur egun dagoen egituran zer eragin izango duen.

Koordinazio Juridikoko Batzordea sortu da, eta sailetako beste unitate administratibo batzuetan aholkularitza juridikoak, aholkularitza juridikoak ez direnak, ez dira batzorde horretako kide. Beharrezkotzat jotzen da batzorde horretan sartzea, esparru juridikoko jarduketan koordinazioa egiaz eraginkorra izan dadin.

Jasotako eginkizunak, batez ere informazioa partekatzekoa, Zerbitzu Juridiko Nagusiaren barruan betetzen dela dirudi, baina ez dela hedatzen beste unitate administratibo batzuetako gainerako aholkularitza juridikoetara.

Ezinbestekotzat jotzen da Funtzio Publikoko Zuzendaritzak ordezkartza izatea Koordinazioko Batzordearen barruan. Funtzio Publikoko zuzendaritza zeharkako unitate administratibo bat da, eta ez bere sailarekin lotuta bakarrik, aholkularitza juridikoen kasuan gertatzen den bezala, baizik eta sail guztiekin eta langileen esparruko erakunde publikoekin lotuta.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiko abokatuen ordezkartza batek ere parte hartuko du Koordinazio Juridikoko Batzordean, bai eta sailetako eta erakunde instituzionaletako aholkularitza juridikoen ordezkartza batek ere. Langile horiek ez dute ordainsaririk jasoko batzorde horretan parte hartzeagatik. Hala ere, kalte-ordainen dekretua aplikatuko zaie, hautaketa-prozesuetako epaimahaietan eta balorazio-batzordeetan parte hartzen duten langileei aplikatzen zaizkien irizpide berekin. Hori guztia aurreproiektuan zehaztu behar da.

Zerbitzu Juridiko Nagusiko abokatu lanpostuei esleitutako eginkizunen berariazko berezitasunak direla-eta, Eusko Jaurlaritzaren dekretuz sortuko den espezialitate horretako funtzionarioentzat gordeko dira lanpostu horiek.

Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiaren antolaerari eta funtzionamenduari buruzko araudian, zer unitate administratibok osatzen duten adierazi behar da, bai eta lanpostu eta dotazioetako bakoitza ere, horietako batzuekin lotutako langileak aipatuz. Hala, zer lanposturi eragingo dien zehaztu behar da, atxikitako abokatuak,

liburutegi- eta dokumentazio-zerbitzuetako langileak, administrazio-laguntza emateko langileak eta aurrerantzean eratuko diren administrazio-unitateetako langileak. Halaber, sailetako aholkularitza juridikoetako bakoitzaren lanpostuak eta dotazioak ere zehaztu behar dira.

Azkenik, agian zehaztu egin beharko litzateke Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren aurretiko baimenari buruzko aipamena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak derrigorrezko txosten juridikoa eman behar duenerako-5.2.a) art.- edo egitateren bat egin behar duenerako edo errekurtsorik edo auzi-jartzerik aurkeztu behar duenerako-9.1. art.—. Proposamen hori eraginkorra eta egokia den aztertzea beharrezkotzat jotzen da, oro har, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena izatea eskatzen baitu.

ONDORIOAK

Egokitasun-arrazoiak direla eta, badirudi komenigarriagoa litzatekeela Eusko Jaurlaritza berariaz gaitzea espezialitate hau sortuko duen lege hau garatzeko. Kasu honetan, lege-aurreproiektuak kendu egingo lituzte abokatuen espezialitatea sortzeko Dekretuan zehaztuko diren muturrei buruzko atal guztiak.

Indarreko legedia, 1/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzekoa, oinarri hartuta, espezialitateak Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bidez sortzen dira. Dekretu horietan, espezialitateen izendapena, ziurtatzeko prozedurak, eta hala badagokio, prozeduren eta eskatutako betekizunen eta eginkizunen galera. Ezaugarri horiek guztiak berariaz jasota daude aurkeztutako lege-aurreproiektuan. Horrez gainera, 17.2. artikuluan Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiko abokatu lanpostuak Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatearentzat berariaz gordeko dira.

Era berean, beharrezkoa da aztertzea langileak espezialitate jakin bateko kidegoan/aukeran hautaketa-prozesuen bidez sartzeak berekin ekarriko duen prozesu horretan izendatutako langileak aipatu espezialitateko lanpostuan gutxienez denbora batez egotea (Ertzaintzako kidegoen espezialitateen erregulazioan gertatzen den bezala). Izan ere, hori eskatuko balitz, espezialitate betekizunik gabeko Zuzenbide Kidegorako/Aukerarako gordetako beste lanpostu batzuk betetzeko mugikortasun-prozesuak murriztuko lituzke.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren 1995ko ekainaren 13ko Erabakia, Lege Araubide eta Autonomia Garapeneko Idazkaritzak -gaur egun, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza- legezkotasuna kontrolatzeko txostena derrigorrez egin behar die xedapenei eta ekimenei buruzkoa, oraindik indarrean dagoela irizten da. Hori dela eta, kontuan izanda lehen puntuak ezartzen duela, araudi-edukia duten xedapenak direnean, lege-aurreproiektuen, legegintzako dekretu-proiektuen edo dekretuen legezkotasunaren txostena derrigorrez egin behar dela, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak legezkotasun-txosten hori egin behar du, txosten juridikoa Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak egin behar duela ezartzen duen Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabaki bat dagoenean izan ezik.

Hala, esan dezakegu xedapen orokorren berri ematen duten txosten juridikoak egiteko hierarkian beste maila bat sortu dela. Hauek izango lirateke: sailetako aholkularitza juridikoek egindakoa; Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren legezkotasun-txostena; Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak egindakoa; eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak egindako txostena.

Hauxe da nik egindako txostena, zuzenbidean hobeto oinarritutako besteren baten mende uzten dudana.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarilaren a

Izpta: Juan Carlos Soto Perez
Funtzio Publikoko Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko burua

O.E.

Izpta: Juan Maria Barasorda Goicoechea
Funtzio Publikoko zuzendaria